

**JOSE MARI SATRUSTEGI: EREILE ETA LEKUKO**  
**MENDAUR I**  
**Aurkezpena**

*Nafarroako Gobernuaren egoitza  
Iruñean, 2006ko ekainaren 22an*

*Andres Iñigo*

Gauza jakina da, nafar euskaldunentzat bereziki, Nafarroako Foru Diputazioaren Euskara Sustatzeko Atalak edo «Sección para el Fomento del Vasconce» delakoak *Príncipe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarri hilabeteikari bat izan zuela 1966 eta 1983 bitartean.

Kontuan izan behar dugu Diputazioaren Euskara Sustatzeko Atal hura osatzen zutenen helburu nagusia nafar euskaldunek bere hizkuntza balioestea zela, eta xede hori lortzeko:

- Batetik, eskolaz eskola joanez, etxetik euskara zekiten haurrei sariak banatzen hasi ziren, ondotik euskararen irakaskuntza eskoletan sartzeko asmoz.
- Bestetik, euskaldunak euskaraz irakurtzera bulkatu nahian, abian jarri zuten *Príncipe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarria. Eta aldizkari hori Nafarroako familia euskaldun guztiek dohainik hartzen zuten.

Jose Mari Satrustegi aldizkari horren lehendabiziko zortzi urteetan kolaboratzaile izan zen, eta kolaboratzaile oparoa benetan, hilabetero idazten baitzuen eta gehienetan artikulu bat baino gehiago. Euskaraz idatzi zituen 168 artikuluak dira gaur aurkezten den Mendaур bilduma berri honen lehendabiziko alea osatzen dutenak.

Gaiei dagokienez, denetik idazten zuen. Zail da sailkapen zehatza egitea, artikulu batzuek gai bat baino gehiago ukitzen dutelako; baina, laburbilduz, erran genezake honako hauek zirela ukitzen zituen gai nagusiak:

- Zenbait pertsonaren ezaugarri eta laudorioak; hilberriak.
- Euskarari buruzkoak: hizkuntzaren inguruko egoera eta kezkak, Euskaltzaindiaren eginbeharrok, batuaren ingurukoak, Nafarroako zenbait herritako euskararen egoerari buruzkoak.

- Garai hartako gizarte arazoak islatzen zituztenak.
- Herrietako ohitura, jai eta ospakizunak.
- Garaiko zenbait gertaera berri eta ideien kritika.
- Nafarroako leku garrantzitsuenetako deskribapenak.
- Ipuinak, olerkiak, herri kantak eta bertsoak.
- Eta azkenik, hain gustuko zuen onomastikari buruzkoak. Izan ere, artikulu franko idatzi zituen, pertsona izenen ingurukoak gehienbat.

Horiek guztiak biltzen dituen liburu honi *Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko* izenburua jarri diogu. Zer dela eta?

*Ereile* diogu, euskararen ereintzarako lurra prestatu eta ereitearen ideia behin eta berriz ageri-agерian dagoelako idatzi zituen artikulu gehienetan; erraterako:

- *Badira neguko lan ilunak, gero udan agertzen direnak. Udan garia bildu nahi duenak, neguan erein beharko du.*
- *Erein gabe ez dago biltzerik, hori edozein nekazarik badaki.*

Eta *lekuko*, Jose Mari urte haietan euskararen alde mugitzen zen ekitaldi guztietan eragile eta lekuko izan zelako.

Erran bezala, artikulu hauek 1966 eta 1973 bitartean idatziak dira. Tarte horretan, 1968an hain zuzen, izan zen Arantzazuko biltzarra. Biltzar horren ondotik Euskaltzaindia hartzen hasi zen erabakiek eragin zuzena izan zuten Jose Mariren idatzietan eta nabaria da zortzi urte horien buruan bere testuetan ageri den bilakaera. Badago aldea ortografia eta abarretan lehenbiziko urteetatik azkenekoetara. Eta bilakaera hori kontuan izan dugu testuak moldatzean. Artikulu horiek egungo irakurleari ahalik eta modu egokienean jartzen saiatu gara, baina horretarako egin ditugun moldaketak irizpide batzuen arabera aplikatu ditugu, eta testu guztiak modurik bateratuenean ematearren, salbuespenak salbuespen, Jose Marik azkeneko urteetan erabilitako moldeetara egokitu ditugu.

168 artikulu horiek aipatutako irizpideen arabera argitaratzeaz gain, bestete zenbait ekarpen egiten saiatu gara, liburuaren azkeneko zatian ageri diren lau atal hauek hain zuzen:

1. Satrustegik garai hartan erabiltzen zuen hizkeraren ezaugarri eta joera nabarienak islatzen dituztenak, hala nola, bokalismoan eta kontsonantismoan zuen joera, deklinabidean, aditzean, hitz eratorriean, joskeran..., erabiltzen zituen formak, etab.
2. Idazkietan ageri diren zenbait esapideren bildumatxoa egin dugu; erraterako:
  - *Bizi aberats baten neurria ez da harriak (hilarriak) ematen duena.*
  - *Kezka asko eta erdaraz mintzo, ametsez jantzitako hilarria.*

Colección MENDAUR bilduma



**Jose Mari Satrustegi:  
ereile eta lekuko**

Andres Iñigo



3. Hiztegia. Gure ustez, Jose Mariren bi ezaugarri nabari dituen hiztegia hautatzen saiatu gara:

- a) Bere bizi-ibilbidearen lekukotza: Arruazu-Luzaide-Urdiain.
- b) Lexiko pertsonalarena: bere ukitu pertsonala dutenak, erranahi berzia ematen dien hitzak, gaztelaniazko zenbait hitzen euskal ordain egokia ezagutzen ez eta sortzen zituenak, etab.

Hautatu ditugun 500en bat hitz horien sarrera bakoitzak honako ezaugarri hauek daramatza kasu gehienetan, egileak non jaso zuen, hitzaren kategoria gramatikala, batuan duen erranahia eta hitzaren aipua bere testuinguruan ageri den artikulua aipatuz.

4. Aurkibide onomastikoa.

Ezaguna da Jose Mari Satrustegiren onomastikarekiko zaletasuna. Izan ere, artikulu hauetan izugarrizko izen pila ageri da eta interesgarri iruditu zaigu horien guztien aurkibidea egitea. Bi arrazoi nagusi izan ditugu hori egiteko:

- Batetik, izenen aberastasuna islatzea, Nafarroako onomastika lanetarako, batik bat, material baliagarria delako.
- Bestetik, horrelako lan batek argi eta garbi erakusten digulako onomastikaren egokitze eta arautzearen beharra gure hizkuntzaren normalizazio bidean. Satrustegik artikulu horiek argitarra eman zituen garaian Euskaltzaindiak ez zuen ezer erabakia izenen forma eta aldaera ofizialaz. Eta artikulu hauetan argi ageri da zein zaila den asmatzea eta behar bezala idaztea ezer arauturik ez dagoenean eta, ondorioz, zer nahas-mahasa sortzen ahal den. Jose Mari onomastikazale amorratua zen; baina, hala ere, beste edozeinek zituen zailtasun berberak izan zituen izen arauturik ez zen garai hartan izen horien forma egokiak asmatzeko.

Ez dut amaitu nahi nire esker ona agertu gabe. Euskaltzaindiari eta Nafarroako Gobernuari, gaur hasiera eman zaion Mendaур bilduma berri hau bi Erakundeen artean indarrean dagoen hitzarmenaren ondorioa baita. Lan hau egiteko laguntza eman didatenei. Eta, azkenik, zorionak eta eskerrak Jose Mari Satrustegiren familiari. Bihotzez eskaintzen diet liburu hau bere anai-arrebei eta *Milikonea* etxean bizi den bere ilobari.

**JOSE MARI SATRUSTEGI: EREILE ETA LEKUKO**  
**MENDAUR I**  
**Presentación**

*Sede del Gobierno de Navarra  
Pamplona, 22 de junio de 2006*

*Andres Iñigo*

Como es sabido, la Sección para el Fomento del Vascuence de la Diputación Foral de Navarra editó entre los años 1966 y 1983 un suplemento de la Revista *Príncipe de Viana* destinado a la promoción del euskera.

Es preciso recordar que aquella Sección para el Fomento se propuso como objetivo prioritario la estima y el uso del euskera por parte de la población navarra euskaldún. A tal fin, se pusieron en marcha, entre otras, dos actividades puntuales:

- Visitar pueblo por pueblo las escuelas para comprobar el grado de conocimiento del euskera de los niños y niñas y otorgarles el correspondiente reconocimiento en forma de diploma. En una segunda fase se comenzó a implantar la enseñanza del euskera como una actividad escolar.
- Crear una revista mensual que se denominó Suplemento de la Revista Príncipe de Viana para el fomento del vascuence, cuyo objetivo no era otro que el de impulsar a las familias navarras de habla vasca a leer en su lengua. La tirada de 7.000 ejemplares era repartida gratuitamente por la Diputación Foral.

José Mari Satrustegi, miembro de la Sección de Fomento, fue colaborador de la revista en sus ocho primeros años de vida. Colaborador prolífico, dado que en cada número escribía habitualmente más de un artículo. La colección Mendaur, que hoy se presenta, recoge en este primer volumen los 168 artículos que Satrustegi escribió en euskera en dicha revista.

Los artículos son de carácter divulgativo y los temas que trata muy variados. Sin pretender hacer una clasificación exhaustiva, podemos decir que, en líneas generales, versan sobre los siguientes temas:

- Aspectos y perfiles de personas conocidas en el ámbito del euskera, así como crónicas necrológicas.
- Consideraciones en torno a la lengua vasca: su situación en Navarra, la labor de Euskaltzaindia, el establecimiento del euskera unificado, consideraciones y preocupaciones por su retroceso en algunos pueblos y valles de Navarra, etc.
- Problemas de tipo social de aquellos años.
- Descripciones de costumbres, fiestas y celebraciones de pueblos de Navarra.
- Comentarios críticos ante ciertas innovaciones, modas y comportamientos de aquella época.
- Descripción de lugares emblemáticos de Navarra.
- Cuentos, poemas, canciones y versos populares.
- Y, por supuesto, escribió muchos artículos sobre uno de sus temas preferidos, la onomástica, centrándose especialmente en nombres de personas, que tanta influencia ha tenido ya desde aquellos años en el cambio registrado en nombres de pila.

Pues bien, a este libro que recoge todos esos temas hemos puesto por título *Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko*, es decir, *sembrador y testigo*.

*Sembrador*, porque muy en línea con los objetivos marcados por la Sección de Fomento, una de las ideas que más se repite en sus artículos es la de que aquellos años eran los años de preparación de la tierra para proceder a la siembra, con la fe y la mirada puesta en los frutos que vendrían posteriormente.

*Testigo*, porque José Mari Satrustegi ya para aquellos años era impulsor y testigo de excepción de cuanto se hacía en favor de la promoción del euskera en Navarra.

Puede decirse que estos textos, escritos entre los años 1966 y 1973, pertenecen a la primera época de Satrustegi como escritor en euskera. Y en ellos se observa claramente la influencia y evolución motivada por un acontecimiento importante como fue el Congreso de Arantzazu de 1968, en el que se acordó la unificación literaria del euskera. Las decisiones que comenzaron a tomarse a partir del Congreso tienen una repercusión directa en el académico de Arruazu, especialmente en lo que respecta a la ortografía, unión y separación de palabras y otros aspectos.

Esta edición pensada para el lector actual, nos ha obligado a realizar la correspondiente acomodación de los textos. Teniendo en cuenta la evolución observada en el propio Satrustegi a lo largo de los mencionados ocho años,

hemos procedido a adecuar todos los artículos a los criterios utilizados por el autor al final de esa época. Ello permite presentar todos los textos como un conjunto unificado en criterios de ortografía fundamentalmente.

Además de realizar la transcripción de los 168 artículos conforme a los criterios que acabamos de mencionar, cuyo detalle se expone en un capítulo inicial del libro, se han elaborado otros aspectos que están expuestos en la parte final de la obra. Se trata de los siguientes cuatro apartados:

1. Características y tendencias más notables que se observan en el euskera de Satrustegi de esta época, en lo referente a vocalismo, consonantismo, uso de la declinación, del verbo, de las palabras derivadas, sintaxis...
2. Selección de unas 70 locuciones extraídas de sus textos.
3. Selección de unas 500 voces del vocabulario del autor. Gran parte de ellas vienen a ser el exponente claro de su recorrido vital: Arruazu-Luzaide/Valcarlos-Urdiain, y otra parte puede considerarse como léxico más personal.
4. Índice onomástico.

El caudal onomástico que se extrae de sus escritos, tanto en lo referente a la antropología como a la toponimia, es fiel reflejo del interés del autor por el tema. Hemos realizado la elaboración de este índice por considerar que es un material interesante para el estudio de la onomástica de Navarra principalmente, y porque todos estos nombres, escritos entre los años 1966 y 1973, es decir, cuando Euskaltzaindia aún no había procedido a normativizar la onomástica, reflejan claramente la necesidad imperiosa de llevar a cabo dicha normativización, al igual que se realiza en otros aspectos de la lengua, como son la ortografía, el léxico o la gramática.

Antes de finalizar, quiero manifestar algunos agradecimientos. A Euskaltzaindia y al Gobierno de Navarra, porque la colección Mendaur que hoy se presenta es fruto del acuerdo firmado y ratificado anualmente entre ambas Instituciones. A las personas que me han prestado su ayuda en la elaboración de este trabajo. Y a la familia de José Mari Satrustegi, a la que dedico de corazón este libro.